

ARNASA SAKONA

Estibaliz Olibares, 13 urte

Zeanuri

Ohi baino goizago esnatu naiz gaur goizean, baina egunero bezela, lehenengo egin dudan gauza leihotik begiratzea izan da ze eguraldi egingo duen igarri asmoz. Goiz hau ordea, ezberdina izan da. Ez dut arretarik jarri eguraldian. Etxepeko zozo geraezinaren kantu goiztiar eta larrosa baten hostoan behera zetorren ihintz tantaren abiada geldoak sortutako zirrarak egun berezi baten atarian nagoela iragarri didate.

Buelta erdia eman eta gelara begira jarri naiz, irrifarra ezpainetatik kendu gabe noski.

Gora begira jarri, begiak itxi eta arnasa sakon bat hartu dut mundua nire zain dagoela sinetsiz.

Esnea berotzen jarri dut, kafe-makinak txirrina jotzen zuen arte. Astiro-astiro gosaldut barruan nuen mundu-jabetzaren sentsazioa kafearen berok erre ez zezan.

Ondo gosaldut eta etxeko sarrerako atea zabalzera abiatu naiz. Han zegoen eguzki esnatu berria bere edertasunean. Sakon hartu dut arnasa, eguzki hura arnasaz bat, nire barrura sartuko zelakoan.

Laurogeita lau urte betetzear nago eta hamabost urte igaro dira, elbarritasun baten ondorioz etxe atariko eskailerak azkenengoz jeitsi nituenetik. Gaur, eguna nire alde jarri da ordea, eta, ausardia atera ondoren guztiak jeisteko gai izan naiz.

Berriro ere, sakon hartu dut arnasa begiak itxita –munduaren jabe izan naiz-.

Aurrerantza abiatu naiz hala-moduz, eserita jartzeko bezalako gainazala zeukan harkaitz bat aurkitu arte. Eseri eta makuluak albo batean itxi ondoren, harkaitz hura ezagun egiten zitzaidala ohartu naiz, izan ere, seme alabek nola jolasten zuten ikusten geratzen nintzen harkaitz berbera zen.

Begiratu bat bota dut ingurura eta oroimen-kutxa ireki. Nire senarra izandakoak, beldurtuta bezala lehen musua emandako lekuan, umeen jolastoki bat dago jarria.

Masailean behera umeldura sentitu dut –negar malko bat zen-.

Beste aldera begiratzea erabaki dut ea zerbait pozgarria aurkitzeko gai nintzen eta halako batean, begirada tinko geratu da. Igande iluntzeetan auzokide guztiok biltzen ginen lekua, gerizpe ederraz jazten zuen haritza ere ez zegoen lehengo lekuan. Nora joan ote dira bere ezpal eta gihar sendoak, bere ezkur ederrak, bere hosto gorritzkeaz udazken oro sortzen zuen harmonia.

Berriro ere umeldura masailean, baina oraingotan alde bietan. Mundu jabetzaren sentsazioa hasi da bere azken fruituak ematen.

Ordulariari begiratu eta arratsaldeko laurak direla ohartu naiz, izan ere, ikusitakoak gosea ere kendu egin dit.

Begiratzen jarraitzeko indarra atera dut eta hirugarren aldiz, negar malkoei atea ireki diet. Garai batean makina bat belar bildutako soroan gaur ez dago oinez ibilteko ere lekurik, guztia dagoelako etxe berriz josia.

Behera begira jarri naiz, mundu jabetza pikutara joan da, malko putzua geratu da lurrean, arnasa sakon hartu nahi izan dut, baina zotina atera zait.

Gaua ilundu arte ez naiz tokitik mugitu eta etxera buelta, joana baino askoz gogorragoa egin zait, une batez pentsatu dudalako ez nintzela gai izango eskailerak berriz igoteko.

Ez dut ezer afaldu arratsaldeko korapiloak sabe-lerako bide guztiak itxi dituelako.

Ohean nago, arratsaldean ikusitakoa hausnar-tzen.

Arnasa sakon bat hartuko nuke, baina beldur naiz azkena izango ote den.

Begiak zabalik ditut eta leihora bideratuak. Bihar goizeko eguzki-izpia ikusi arte ez nau loak hartuko.